

(2019/05/20tik indarrean dagoen testua)

IMPORT ARRASATE SAn (aurrerantzean «IASA») arduraz jokatzeko dugu tratatzen ditugun datu pertsonalekin, eta zorrotz betetzen dugu uneoro gai horri buruzko indarreko araudia.

Pribatutasun-politika honek (aurrerantzean, «PRIBATUTASUN-POLITIKA») arautzen ditu, izaera orokorrarekin, datu pertsonalak jasotzeko eta tratatzeko prozedurak. IASAk gauzatuko ditu jarduera horiek, eta datuak zeuk emango dizkiguzu, <http://www.ternuagroup.com> domeinuaren bidez eskuragarri dagoen webgunearen erabiltzaile gisa (aurrerantzean, «WEBGUNEAK»), WEBGUNEAREN bidez unean-unean eskuragarri dauden zerbitzuak barne. Hori guztia WEBGUNEAREN atal, inprimaki edo zerbitzu jakin batzuetan dagokion informazioa emateko eta, dagokionean, baimena eskatzeko ezarrita dauden xedapen espezifikoaren kalterik gabe.

IASAk PRIBATUTASUN-POLITIKA aldatzeko eskubidea dauka, legedia, jurisprudentzia eta/edo administrazioaren berritasunetara egokitzeko, baita WEBGUNEAREN bidez egiten dituen praktiketara ere, betiere zure eskubideak eta interesak kontuan hartuta. Nolanahi ere, IASAk PRIBATUTASUN-POLITIKA ezagutu ahal izateko baliabide tekniko egokiak emango dizkizu, datuak babestearen arloan indarrean dagoen legediari jarraikiz dagozkigun informatzeko zereginak behar bezala betetzeko.

## **1. Nor da datuen tratamenduaren arduraduna?**

Zure datuen tratamenduaren arduraduna IMPORT ARRASATE SA da. Elkartearen helbidea Arrasate-Mondragoneko (Gipuzkoa) Kataide Musakola industrialdea, 25. pabilioia da, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan izena emanda dago (1.230. liburukia, 104. folioa, SS-4.588 orria) eta A-20212775 IFKa dauka.

PRIBATUTASUN-POLITIKAREKIN eta/edo zure datuen tratamendurekin lotutako edozein gaitarako gurekin jar zaitezke harremanetan, lehen adierazitako posta-helbidean eta/edo [lopd@ternuagroup.com](mailto:lopd@ternuagroup.com) helbide elektronikoaren bitartez.

## **2. Nola lortu ditugu zure datuak?**

IASAn tratatzen ditugun datuak zuk zeuk emandakoak dira, honako hauen bidez: (i) WEBGUNEAK eta/edo beste kanal batzuk (halakorik dagoenean) erabiltzerakoan betetako inprimakiak (adibidez, WEBGUNEAKO erabiltzaile gisa erregistratzea, halakorik dagoenean, harremanetarako inprimakiak, lan-eskaintza eta/edo hautaketa-prozesuei buruzko inprimakiak, etab.) edo (ii) kontsulta bat egiteko mezu elektroniko bat bidalita.

Emandako datu pertsonalak hirugarren batenak balira, zuk bermatu egiten duzu hirugarren horri PRIBATUTASUN-POLITIKAREN berri eman diozula eta bere baimena lortu duzula datuak IASAn emateko aurrerago adieraziko diren xedeetarako.

## **3. Zer datu mota tratatzen dugu?**

IASAn tratatzen ditugun datuak zuk zeuk WEBGUNEAN nabigatzean emandakoak dira, gure arteko harremana formalizatzeko inprimakien bidez eta/edo email bidez lortutakoak.

Zehazki, IASAn datu kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazioko eta harremanetarako datuak (esaterako, izen-abizenak, NANA, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefonoa, etab.).
- WEBGUNEAN erregistratutako erabiltzailearen identifikatzaileak eta pasahitzak.
- Interneteko nabigazioaren inguruko datuak (besteak beste, IP helbidea, webguneetako bisitak, wifi-sareetako konexioak, etab.).
- Ezaugarri pertsonalei, prestakuntzari, enpleguari eta abarri buruzko datuak (lan-eskaintza edo -eskarien eta/edo zeure borondatez parte hartzen duzun IASaren hautaketa-prozesuen kasuan).

#### **4. Zer xedetarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak eta zer legitimaziorekin?**

Zure datu pertsonalak xede hauetarako tratatuko dira:

- WEBGUNEAREN erabiltzaile izateko zure erregistroa kudeatu eta izapidetzea, posible denean.
- IASAK WEBGUNEAREN bidez zure esku ipintzen dituen edukietara eta zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko prozesua kudeatzea, barnean sartuta bloga, sare sozialak edo WEBGUNEAREN bidez unean-unean eskuragarri dagoen edozein funtzionaltasun.
- WEBGUNEAREN edo posta elektronikoaren bidez egiten dituzun informazio-eskaerak, iradokizunak, kexak edo erreklamazioak izapidetu eta kudeatzea.
- Zure enplegu-eskaria edo enplegu-eskaintza bateko izen-ematea eta dagokion hautaketa-prozesuko parte-hartzea kudeatzea.

IASAk zure datu pertsonalak tratatzeko oinarria, aplikatzekoa den araudiaren arabera, zuk WEBGUNEAN, horretarako ezarritako mekanismoen bidez, datu pertsonalak zure borondatez jakinarazteko unean ematen diguzun baimena da.

Gogoan izan, tratamenduaren oinarria zure baimena denean, edozein unetan bota dezakezula atzera, modu librean eta doan, hurrengo atalean<sup>7</sup> zehazten diren baldintzetan.

#### **5. Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?**

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak hirugarren alderdi hauei jakinarazi ahal izango zaizkiela:

- Organismo eta administrazio publikoei, IASAk datuak jakinarazteko legezko obligazioa duenean.
- Zuk baimendu duzunean, IASaren enpresa taldea osatzen duten erakundeei (esteka honetan behar bezala identifikatutakoak), zure eskaera eta kontsultei erantzuteko eta/edo erakunde horiei eta egiten dituzten jarduera edo produktuei buruzko komunikazio komertzialak bidaltzeko.

Ez dago aurreikusita zure datuen nazioarteko transferentziarik egitea.

## **6. Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?**

Oro har, zure datu pertsonalak zuk tratatzeko baimena atzera bota edo datuak ezabatzeko eskatzen ez duzun bitartean gordeko ditugu. Azken kasu horietan, IASaren legezko obligazioak betetzeko beharrezko denboran gordeko dira datuak.

Edonola ere, jakinarazten dizugu IASAk datuak arazteko barne-politikak dituela, erakundeak dituen datu pertsonalak gordetzeko epeak kontrolatzeko asmoz; horren ondorioz, posible da datuak ezabatzea, bildu ziren xederako beharrezkoak eta/edo egokiak izateari uzten diotenean.

Bereziki, enplegu-eskaerak kudeatzeko zure datuak gehienez ere 2 urteko epean gordeko dira.

## **7. Zer eskubide dituzu?**

Datuak babesteko legeriak eskubide jakin batzuk aitortzen dizkizu zure datu pertsonalen inguruan, eta zure datuak tratatzen diren bitartean eskubide horiek gauzatzeko aukera izango duzu. Hauek dira eskubide horiek:

- Datuetarako sarbidea: eskubidea duzu zure datuetara sartzeko, zuri buruzko zer datu pertsonal tratatzen ari garen jakiteko.
- Datuak zuzendu edo ezabatzeko eskatzea: hainbat egoeratan, eskubidea duzu tratatzen ari garen zure datu pertsonaletan dauden akatsak zuzentzeko edo, baita ere, datu horiek ezabatzeko eskatzeko, datu horiek bildu ziren xederako beharrezkoak izateari utzi diotenean, besteak beste.
- Datuen tratamendua mugatzeko eskatzea: egoera jakin batzuetan, eskubidea duzu zure datuen tratamendua mugatzeko eskatzeko. Hori egitekotan, erreklamazioak egiteko edo erreklamazioetatik babesteko baino ez ditugu gordeko, datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusten den moduan.
- Datuen eramangarritasuna: zenbait egoeratan, eskubidea duzu eman dizkiguzun zuri buruzko datu pertsonalak jasotzeko, ohiko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean, bai eta datuok tratamenduaren beste arduradun bati igortzeko ere.
- Datuen tratamenduari aurka egitea: inguruabar jakin batzuetan eta zure egoera partikularrekin lotutako arazoak direla eta, eskubidea duzu zure datuen tratamenduari aurka egiteko. Hori egitekotan, datuak tratatzeari utziko genioke salbu eta, premiazko arazo legitimoak direla eta, edo erreklamazio posibleak gauzatu edo horietatik babesteko, datu horiek gorde behar badira.

Era berean, eskubidea duzu emandako baimena edozein momentutan ezeztatzeko, ezeztatu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunari kalterik egin gabe.

Eskubide horiek baliatzeko, idatzizko eskaera egin beharko diozu IASARI, 1 atalean adierazitako posta-helbidera edo [lop@ternuagroup.com](mailto:lop@ternuagroup.com) emaillean.

Azkenik, jakinarazten dizugu erreklamazio bat aurkez dezakezula kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean (Espainian, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa), batik bat eskubideak gauzatzetik lortu ez duzunean. Agintaritza horrekin harremanetan jartzeko,

bere webgunea erabil dezakezu: [www.aepd.es](http://www.aepd.es).

### **8. Segurtasun-neurriak**

IASAk zure datuak beti modu erabat konfidentzian tratatu eta horien gaineko sekretu-eginbearra beteko du, datuak babesteari buruzko araudi aplikagarrian xedatutakoari jarraituz. Horretarako, teknologiaren egoera, gordetako datuak zein motatakoak diren eta zein arriskuren pean dauden aintzat hartuta, zure datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu.

### **9. Cookieei buruzko politika**

Halaber, jakinarazten dizugu IASAk cookie-politika bat duela, esteka honetan kontsultagai.